

Iritsi zaigu sagardo berria

Bertako sagar uzta urria izan da eta, nolabait, horrek markatuta dator kanpaina

...nanean, orain dela hiru hi-
...bera inguru, kupeletan sar-
...sagar-muztioaren har-
...prozesua bukatzen ari
...eta lortutako sagardo
...dago txotx-denboraldian
...sagardozaleek ur-
...egaitera bera egiten dute.
...olako izango da aurtengo
...sagardo berria? Bada, nahiz
...eta hemengo sagar-kopurua
...ekasa izan den, kalitate one-
...produktua egin dute sagar-
...gileek.



Sagardogileek gero eta hobeto ezagutzen dute sagardo naturala egiteko prozesua eta lehengai.

Aurtengo sagardo naturalaren kanpaina, nolabait, bertako sagardotegiaren eskasiak markatuta dator. Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2006ko kanpainan 15,5 tona sagar erabil ziren; eta horietatik %45, Gipuzkoakoak. Orain, datu zehatzak jakin beharreean gaude, baina badirudi hori askoz txikiagoa izango dela. Gipuzkoan, esaterako, uzta oparoenak Beterri aldean lortu ziren. Goierrin, aldiz, oso urria izan zen.

Adunako Zabala sagardotegi-ko arduraduna egoeragatik keza-zen zen duela gutxi. «Guk, norma-lean, sagardo hemengo sagarrekin egiten dugu urtero, baina azken uzta urria izan zenez, importazioz baliatu ginen. Urtez

urte aldaketa nabarmena izan dugu. Esaterako, aurreneko denboraldian sagar asko jaso genuen eta sobera genuena beste sagardogile batzuei saldu genien. Harrigarria badirudi ere, Andoaindik hegoalderaino uzta oso urria izan zen. Sagarrondo batzuek dozena bat sagar besterik ez zuten eman. Hala ere, Hernanitik iparraldera, kostaldera, ez zen bate-
re uzta txarra izan oro har».

Aitor Etxeandiaren ustez, joan den maiatzean izandako eguraldi txarregatik, azkeneko uzta urria izan da. Hotzak, euriak eta kazkar-
erauntsiek eragin handia izan dute sagastietan. Garai hartan, lo-

*Hotzak, euriak
eta kazkar-
erauntsiek eragin
handia izan dute
sagastietan*

raldia eta polinizazioa amaitu be-
zain pronto, eguraldi txarrak fruitu-
tuen akhareo basatia egin zuen eta
sagarrondoetako kimu gehienak
lurrera erori ziren. Ondorioz, fruitu-
ak ezin izan ziren hazi. Azken fin-
ean, natura berak egin zuen akla-
reo-lana; baina, zoritxarrez,
inolako kontrolik gabe eta, dudar-
rik gabe, gehiegizkoa. Hala ere,
dena ez zen txarra izan, haztea lor-
tu zuten sagarrek kalitate hobea
eta tamaina handiagoa lortu bai-
tzuten. Argi dago arrazoia: gara-
tu ziren sagar urriek elikagai
gehiago izan zuten.

Arrazoi horientatik guztien-
gatik, Gipuzkoan, aurtengo sa-

gardo-uztak inoiz baino sagar gu-
txiago dauka hemengo. Kanpo-
tik sagar tona ugari ekarri behar
izan dira. Badirudi kalitate alde-
tik ez dagoela arazo handirik, eka-
rritako sagarrak onak baitziren
oro har. Beraz, lehengai ona era-
biltzen bada, sagardo ona lortze-
ko aukera handiagoa da.

Sagardo berriak dastatzeko
aukera izan dutenek produktu
ona iragartzen digute. Fruta-gus-
tukoa, garratzasun egokikoa eta
polifenoletan orekatua. Sagardo-
gileek gero eta hobeto ezagutzen
dute lehengai, eta, nola ez, baita
sagardo ona lortzeko prozesua
ere.



LIZEAGA
Astigarraga

Eska ezazu Sagardoa!
eta etiketan LIZEAGA
jarriko balu askoz hobea.

EDAN ETA EMAN EDATERA